



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **UDALBATZAK 2017KO MAIATZAREN 9AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

### **BERTARATUAK:**

Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
Miren Itziar Arratibel Imaz  
Jesus Peñagarikano Labaka  
Jon Mikel Iglesias Otegui  
Irati Ozaita Azpiroz  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Maria Cristina Goya Amiama  
Eleuterio Sanchez Garcia

### **BITARTEKO IDAZKARI :**

*Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko maiatzaren bederatzian** arratsaldeko zazpi zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ezohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2016ko Aurrekontu Orokorraren Kitapena: 2/2012 legearen helburuen betetzeari buruzko ebaluazio-txostena, informazioa eta dokumentazioa.**
- 2.- 2/2017 Kreditu Aldaketen espedientea, kreditu gehigarriak.**

2017/05/09



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**LEHENA:**

**2016KO AURREKONTU OROKORRAREN KITAPENA: 2/2012 LEGEAREN HELBURUEN BETETZEARI BURUZKO EBALUAZIO-TXOSTENA, INFORMAZIOA ETA DOKUMENTAZIOA.**

Kontu-hartzaileak aurrekontu-egonkortasunaren txostenaren berri ematen du, berau udalbatzari jakinarazi beharrekoa eta testuak hitzez-hitz hauxe dio:

**AURREKONTU KITAPENA**

Aurrekontu egonkortasunaren ebaluazio-txostena

Erakundea: IBARRA

Ekitaldia: 2016

Erakundea	Aurrekontu egonkortasuna				Erakundearen gaitasun finan.
	Diru-sarrera ez finantzarioa (1)	Gastu ez finantzarioa (1)	Doiketa kontuen europar sist. (2)		
Erakunde doiketa			Barruko eragiketen doiketa		
IBARRA	4.863.477,16	4.340.420,57	0,00	0,00	523.056,59

(1) Erakundeak aurrekontu mugatzailea badu –Aurrekontu Gastu eta Sarrera ez finantzarioei dagokie (kap. 1 a 7)

Erakundeak enpresa -kontabilitatea badu – Aurrekontu Gastu eta Sarrera ez finantzarioei dagokie (KESera doituta)

(2) Soilik erakundeak aurrekontu mugatzailea badu beteko da.

Toki korporazioaren finantzazio gaitasuna

523.056,59

**2/2012 LEGEA BETETZEA EDO EZ BETETZEA ekitaldian**

Toki korporazioaren aurrekontu egonkortasunaren betetzeari buruzko oharrak :

Ibarrako Udalak BETETZEN DU Aurrekontu Egonkortasunaren helburua 2016ko Aurrekontu Orokorraren Kitapen espedientean.

(1) Lerro hau agertu da soilik erakundek onartua baldin badu Plan Ekonomiko finantzarioa ,indarrean 2016an.

2017/05/09



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Kontuhartzaileak bertaratuei banatu die 2016ko Aurrekontu Orokorraren Kitapenaren dokumentazio zehatza, eta horrekin batera, udal ekonomia-egoeraren agiria, zehazki diru-sarrera eta gastuen egoera, atalka eta partidaka, 2017ko maiatzaren 4an, aurrekontu partiden balantzea programaka, diruzaintzaren egoera, diruzaintzaren geldikina, diruzaintzaren egoera 2016-12-31n, egoeraren balantzea, 2016ko galera eta irabazien kontua, zorraren egoera eta ondare-aurrekontuaren koadratzea.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza.

## **BIGARRENA:**

### **2/2017 KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIAK.**

2/2017 kreditu aldaketaren espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien bidez eta udal honen aurrekontuari eragiten diona

Kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Horren arabera, espedienteak dagokion araudia betetzen du, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27 artikuluan ezarritako eskakizun eta izapideak.

Kontuan izanda Gipuzkoako Tokiko Erakundeetako Zergei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31 eta 34.3 art. eta Aurrekontua gauzatzeko Udal Araudiaren 4 atalaren 5.b art.

Ikusi da Ogasun eta Kontuen batzordearen 2017ko maiatzaren 4ko irizpena, , Udalbatzak 9 aldeko botorekin ( 5 BILDU eta 4 EAJ-PNV )

## **ERABAKITZEN DU**

LEHENA: Onartzea 2/2017 Kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarrien bidez, eta udal honi dagokion aurrekontuari dagokiona. Ondoren zehazten da atalka:

### **KREDITU GEHIKUNTZA**

<b>ATALA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>GEHIKUNTZA</b>
2.-	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	88.777,00

2017/05/09



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

6.-	Benetako inbertsioak	204.325,00
<b>GUZTIRA GEHIKUNTZAK.....</b>		<b>293.102,00 €</b>

## **FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

### **A) AUREKONTU KREDITUEN BAJAK**

<b>ATALA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>MURRIZKETA</b>
2.-	Gastu arruntak	12.000,00
4.-	Transferentzi arruntak	40.000,00
6.-	Benetako inbertsioak	40.875,00
<b>GUZTIRA MURRIZKETAK.....</b>		<b>92.875,00 €</b>

### **B) DIRUZAINZA GERAKINA**

<b>ATALAK</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>Zenbatekoa</b>
8.-	Diruzaintza gerakina	195.227,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>200.227,00 €</b>



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu orokorrari ematen zaion izapidetzea emango zaio.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hamabi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/05/09